

EUSKARAREN EGOERA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEETAN

Iñaki Irazabalbeitia, Montse Maritxalar, Kepa Altonaga

Laburpena:

Lan honetan euskarak Euskal Herriko unibertsitate desberdinetan bizi duen egoera aztertu nahi da. Irakaslegoaren egoera eta estatusa aztertuko dira bereziki, horrek azaltzen duelako egokien zein den gure komunitate unibertsitarioaren benetako abiatze-puntua balizko euskal unibertsitatea egin nahi bada.

Summary:

Nowadays, a debate about the viability of a basque university is going on in certain areas of the basque society. The basque university is defined as that one where all the academic activities (lectures, research...) are developed in basque language.

On the research of that viability the authors study the situation and status of basque language in the five universities established at the Basque Country: The University of The Basque Country; The University of Navarre; The Public University of Navarre, The University of Deustua and some centers in Baiona belonging to the Universities of Bordeaux and Pau.

The few works published up the date on that subject fail in the same main error, since they remark mainly the number of matters and subjects taught in basque language or the number of basque speaking teachers and forget data as important as the bibliography available or the status and qualifications of the basque teachers. That is why the authors make an study of the actual status and situation of basque speaking teachers in the Basque Country universities, mainly in The Basque Country University, because it holds almost nine of ten basque speaking teachers.

The study tries to answer the following questions: in which university and faculty, college or school do those teachers lecture?; In which knowledge area do they teach?; Which degree and professional status do they have?; Do those teachers lecture in socially influential areas?...

The authors reach to five main conclusions:

1. Almost one quarter of the university teachers and professors are basque speakers and most of them lecture at The Basque Country University.
2. The majority of them are no-doctors.
3. The majority of them are assistant teachers.
4. Most of them lecture in studies that nowadays have little or none attraction to students or social influence (regarding the basque language recovering process or the social and economical wealth) in the Basque Country like teachers schools or philosophy. However, there is a lack of basque speaking teachers in socially and economically influential studies like engineering, economics, marketing or medicine.
5. To assure the viability of a basque university a great and deep planification in teachers formation is needed.

1. HELBURUAK

Une honetan unibertsitate euskaldunaren gaia, euskaraz ihardungo duen unibertsitatearena hain justu, hizpide bilakatu da Euskal Herriko hainbat gizarte-alorretan. Argi bezain garbi dago, euskarazko unibertsitate hori, epe luze zein motzago batera, abiatzen bada, azterketa sakona egin beharko dela pausorik aurrera eman aitzin.

Lan honen helburua, aldez aurretiko azterketa horietarako lehen hurbilketa burutzeta da, gaur egun Euskal Herrian dauden unibertsitateetan, pribatu zein publikoetan, euskarak bizi duen egoera arakatzea hain zuzen ere. Izan ere, euskara balizko unibertsitate horren eguneroko lan-erreminta izango bada, zein puntutatik abiatzen ari garen jakitea ezinbestekoa dugu.

Orain arte, unibertsitatean euskararen egoera zein den ezagutu nahi izan denean, datu estatistiko globaletara baka-

rrik jo izan da, adibidez, zenbat gai eta zeintzu ikasketatan ikas daitezkeen euskaraz, edota zenbat irakasle euskaldun dagoen. Datu horiek ez dira okerrak, baina basoa ezkuta diezaguketen zuhaitzak izan daitezke, gordinak eta globalizatzaileak direlarako. Bide horretan, datu horiek gordin-gordinik aipatzen direnean unibertsitatea eskolak emateko erakunde gisa kontsideratuta dagoela ematen du, eta badakigu, unibertsitatea hori baino askoz ere gehiago dena. Datu horiek argigarriak izanik ere ez dizkigute, esaterako, zein den irakaslego euskaldunaren estatusa esaten, edo euskarazko bibliografiarik badagoen eta egokia den adierazten, edota unibertsitate barneko erlazioak zein hizkuntzatan burutzen diren argitzen. Eta hori ezagutzera eta balioztatzea oso garrantzitsua da euskal unibertsitatea egin nahi bada, besteak beste, abiapuntuaren erradiografia ematen digulako. Eta ezpairik gabe, egun dugun irakaslego euskaldunaren egoeraren berri zehatz-mehatza edukitzea ezinbestekoa da, unibertsitate horren muina izango bait da.

Horrexegatik, Udako Euskal Unibertsitatean alderdi horiek eta beste batzuk ere (arazo legalak adibidez) aztertu behar zirela oso premiazkoa ikusi genuen eta horretarako mintegi bat antolatu zen.

Beraz, lan honek mintegi horretan jorratu eta landutako zerbait lanen laburpen eta leiho izan nahi du.

2. UNIBERTSITAL ERAKUNDEAK EUSKAL HERRIAN

Bost dira egun Euskal Herrian dauden unibertsital mailako erakunde nagusiak: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU: Bilbo, Donostia eta Gasteizen), Deustuko Unibertsitatea (DU: Bilbo eta Donostian), Nafarroako Unibertsitatea (NU: Iruñea eta Donostian), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA: Iruñean) eta Baionan Bordeleko eta Pabeko unibertsitateen menpe dauden zentruak (IUT bereziki), balizko Baionako Unibertsitatearen hazi izan daitezkeenak.

Bereziki nahasia da Euskal Herriko unibertsitateen egoera. Adibidez, zentru publiko eta pribatuaren gain, hirugarren zikloko ikasketak baino ematen ez dituztenak ere badaude.

Pentsa liteke, unibertsitate gehiagi dagoela gurea bezalako herri txiki batean (3.000.000 biztanle ozta-ozta) eta berri bat planteatzeak, euskarazkoa edota batzuk proposatzen duten unibertsitate politetnikoa alegia, zentzugabekeria dela. Ez gara gu eztabaida horretan sartuko, euskarazkoa premiazkoa dela pentsatzen dugulako besteak beste eta gainera, ez delako hau ez tokia ezta unea ere, bestelako unibertsitateen beharraz eztabaidatzekoa. Gainera, Euskal Herriko euskarari eutsi nahi badio, euskarazko unibertsitatea behar du. Noiz, nola, zein estatus etab. izan litezke galderak, inoiz ez euskarazko unibertsitatearen zilegatasuna.

3. IRAKASLEGOAREN EGOERA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEETAN

Euskal Herriko unibertsitate guztietan 3.000 bat irakasle dago gutxi gorabehera, horietako 700 bat euskal hiztunak direlarik. Horrek irakaskaleen % 23a euskalduna dela adierazten du. Nabarmena denez, Euskal Herriko unibertsital irakasleen gehiengoa UPV/EHUan dago, besteak beste unibertsitate hori gure herrian kokaturikoen artean handiena delako (26 zentru eta 52.000 ikasle ditu) eta lanpostu elebidunak sortzeko politika apal bat egon delako. Ez dugu hemen

unibertsital irakaslego osoaren estatusa aztertuko (funtzionario, kontratatua edo bestelakorik), ez delako hori lan honen helburua eta euskal irakaslegoari bakarrik gagozkiolarik aztertuko dugu gaia.

Oraintxe aipatu dugun legez, 700 inguru dira Euskal Herriko unibertsitateetan ari diren irakasle euskaldunak. Datu hau kontuz hartu behar da, datu estatistiko hutsa izanik beste ñabardurarik ez duelako. Izan ere, irakasle horiek duten hizkuntza ezaguera, esaterako, bazter gelditzen da esku artean ditugun datuetan. Beraz, irakasle euskaldun esan ordez, egoikiago izan liteke "euskalduntzat jotzen diren irakasleak" esaldia erabiltzea. Alabaina, irakasle euskaldun esango dugu nahiz eta akaso, euskalduntzat jotzen ditugun horietako batzuk nola edo halakoak izan.

Bestetik, bi puntu daude gure ustez argitzekoak. Alde batetik, azterketa hau egiteko ez dira Euskal Herriko kanpoko unibertsitateetan diharduten euskal irakasleak kontutan hartu: kopurua txikia izanik ere horietako batzuk oso koalifikatuak dira beren arloetan. Bestetik, ikerketa—zentruetan diharduten irakaslegai posibleak ere bazter utzi dira, horietako batzuk irakasle koalifikatu bilaka daitezkeelarik.

UPV/EHU Euskal Herrian kokaturiko unibertsitateen handiena denez, bertan euskal irakasleen kopururik handiena egongo dela pentsatzeak arrazoizkoa dirudi. Eta horrela gertatzen da. Unibertsitate-irakasle euskaldunen % 89,5ek UPV/EHUan dihardute, hamarretatik bederatzik kasik. Deustuko unibertsitatean % 6,2 ari dira eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan % 3,3a. Baiona IUTn eta Nafarroako Unibertsitatean ari diren kopurua hutsaren hurrengoa da, % 0,6 eta % 0,3 hurrenez hurren.

Azter dezagun irakasle euskaldunen egoera.

Lehenik, irakasle euskaldun horiek zeintzu alorretakoak diren eta zein titulazio duten arakatuko dugu. Horretarako, irakasle euskaldunak lau alor nagusitan banatu ditugu: OHoko irakasle-eskolakoak, zientziatakoak (injererutza eta arkitektura barne), osasun-zientziatakoak eta giza eta gizarte-zientziatakoak¹. Datuak 1, taulan bildu ditugu.

1. taula. Irakasle euskaldunak ikasketa-alorraren arabera

Ikasketa-alorra	UPV/EHU	UPNA	DU	NU	IUT
OHO (%21)	%90	%10	-	-	-
Zientziak (%25,5)	%99	-	-	%1	-
Giza eta gizarte-Zientziak (%51,5)	%85	%3	%12	-	-
Osasun-Zientziak (%2)	%100	-	-	-	-

Irakasle euskaldunen bostena OHoko irakasle-eskolakoa izatea nabarmentzekoa da. Horren arrazoiak, euskararen berreskurapenerako irakaskuntzari emaniko pisu handia eta maisu-maistra formatu beharra da. Egindako lana eta esfortzua nabaria izan da, baina tamalez, bide horrek ez du etorkizunik.

Taula honetako beste datu deigarria, osasun-zientziei dagokien portzentaiak damaigu: soilik % 2. Portzentaia urri

1. Irakasleen ikasketa-alorra jakiteko zein fakultate edo eskolatan ematen duen eskola hartu dugu kontutan.

hori ikusirik, atal horren euskalduntze-prozesua ahaztu egin dela esan liteke.

Bestetik, 2. taulan irakasleen titulazioari buruzko datuak bildu dira.


2. taula. Irakasle euskaldunen titulazioa

Titulazioa	UPV/EHU	UPNA	Deustua	NU	IUT
Erdi mailakoa (%0,3)	%100	-	-	-	-
Lizentziatua (%77,7)	%87	%4,4	%8	%0,1	%0,3
Doktorea (%22)	%98	-	-	%0,6	%1,4

Beraz, lizentziatuak dira nagusi, hiru laurdenak izanik.

Alabaina, irakasle euskaldunen egoera ezagutzeko beste datu interesgarria beren estatus kontraktuala ezagutzeko da. Unibertsitate pribatueta dihardutenen egoera jakina da, kontratu laboral ohizko baten bidez lotuak dituztelako beren erakundearekiko erlazioak. Unibertsitate publikoetan aitzitik, erlazio laboralaren egoera oso datu garrantzitsua da, irakasleen egonkortasun laboralari begira batez ere. Ez da horratio erlazio laboralaren datu horrek eman dezakeen beste argibide bat ahaztu behar, unibertsitate publikoetan irakasle funtzionario izateko doktore izan behar bait da, unibertsital eskoletan izan ezik. Horregatik 3. taulako datuek aditzera ematen dutena ez da harritzekoa.

3. taula. EHU eta UPNAko irakasle euskaldunen egoera kontraktuala



Datuok barnetik aztertuz desoreka nabarmena dago: UPNAko funtzionario guztiak unibertsital eskolakoak dira eta UPV/EHU % 62a. Laburtuz, unibertsital eskolek biltzen dituzte egonkortasun laborala duten irakasle euskaldunen bi heren inguru. Bestetik, irakasle funtzionarioen % 9 katedraduna da eta EHU daude guztiak. Beraz, datuei begira UPV/EHU eta UPNA egoera portzental beretsuan daudela ikusten da.

4. IRAKASLE EUSKALDUNAK UPV/EHU

Irakasle euskaldunen hamarretatik ia bederatzik UPV/EHU lanean iharduteak pisu eta garrantzia berezia damaizkio unibertsitate horri. Beraz, UPV/EHU buruzko azterketa sakonxeagoa egitea baliagarria izan daiteke.

UPV/EHU Euskal Herriko unibertsitaterik handiena da 2.500 bat irakasle eta 50.000 gora ikasle dituelarik 3 kanpuse-tan eta 26 fakultate, goi-mailako eskola edo unibertsital eskolatan banaturik. UPV/EHU gutzira 600 bat irakasle euskaldun dago eta 5.500 bat ikasle euskal adarretan.

Azterketa egiteko irakasleak sei multzo nagusitan banatu ditugu: ekonomi eta enpresa—ikasketak, giza eta gizarte-zientziak, zientzia hutsak (farmazia eta informatika barne), injinerutzak (arkitektura barne), osasun-zientziak eta irakasle-eskolak. Alor horietan irakasle euskaldunak nola banatzen diren 4. taulan azaltzen da.

4. taula. Irakasle eta ikasle euskaldunak ikasketa-alorraren arabera

Alorra	Irakasle euskaldunak	Ikasleak
OHO	%21	%3
Ekonomia	%6	%22,5
Giza zientziak	%44	%35,5
Zientziak	%20	%14
Injinerutza	%7	%18,5
Osasuna	%2	%6,5

Irakasle euskaldunen ondoan, ikasketa horiek ikasten dituzten ikasleen portzentaiak jarri dira. Ikasleen portzentaia-ekin ikasketa horren arrakasta edo erakarpen-indarra neurtu nahi da.

Desoreka nabarmenak erakutsi ditu 4. taulak. Alde bate-tik, irakasle euskaldunen bostena biltzen duen alorrek, OHOk eskolak hain justu, ikasleen % 3a baino ez du biltzen. Egun, OHOk ikasketak etorkizun laboralik gabekoak dira dirudienez, eta demografiaren bilakaera eta azken urteotan jazotako maisu-maistren gaztetze nabarmena ikusirik ez dirudi datu hori epe motz edo ertainean aldatuko denik.

Bestetik, alderantzizko egoera gertatzen da ekonomi alor-rean. Ikasleen laurdena ia bertan ari da, baina irakasle euskaldunen % 6 baino ez dute biltzen. Injinerutza alorrean ere gertatzen da desoreka hori. Kasu hauetan, euskaraz ematen diren asignaturei begiratzen badiegu, desoreka areagotu egiten da eta esaterako Bilboko Industri Injineru eta Telekomunikazio-Injineruen Goi-Eskola Teknikoan bost asignatura baino, lehen urtekoak guztiak, ezin dira euskaraz ikasi. Hau kezkarria da ez bakarrik eskaera sozial handia duten ikaske-ta batzuetan euskararen presentzia txikia delako, baizik eta, ikasketa horiek pisu handikoak direlako gizartean. Bertan gero gizartearen motore izango diren profesionalak formatzen dira eta horien faktore biderkatzailea galtzen du euskaraz neurri handi batean, arrotz gertatzen da alor horietan hain zuzen ere.

Antzeko gauza jazotzen da osasun-ikasketetan, nahiz eta aurrekoan bezain nabarmena ez izan. Mediku eta erizain euskaldunak formatzeko biderik ez dago eta ondorioz osasun-arlo-ak euskaldunentzat arrotza eta erdalduen jarraituko du izaten.

Zientzia zehatz eta giza eta gizarte-zientzietan egoerak orekatuagoa dirudi, nahiz eta bietan irakasleen proportzioa ikasleena baino altuxeagoa izan. Alabaina, datu horiek sakonago aztertzen baditugu, desoreka nabarmenak agertzen dira. Hain zuzen ere, gizartean eragin handia duen zuzenbidean, ekonomian eta injinerutzan gertatzen den gauza bera jazoten da, ikasleen proportzioak irakasleena gainditzea: zuzenbideak ikasleen % 24a eta irakasleen % 12a biltzen ditu (alorra oinarritzat harturik). Filosofia eta Hezkuntz Zientzien fakultatea aztertzen badugu, egoera alderantzizkoa da: irakasleen % 15a eta ikasleen % 4,4.

Beraz eta laburpen gisa zera esan daiteke: eskaera eta eragin sozial handiko ikasketak irakasle euskaldunetz deshor-

nituta daude, eskaera eta eragin sozial txikikoagoak hobeto hornituta dauden bitartean.

Azkenik atal honi amaiera emateko irakasle euskaldunen titulazioa aztertuko dugu. Datuak 5. taulan daude.

5. taula. Irakasleen titulazioa (alorraren azpian, parentesi artean, oso-arekiko doktoreen portzentaia ematen da)

Alorra	Lizentziatu	Doktoreak
OHO (%2,7)	%96,8	%3,2
Ekonomia (%5,5)	%78	%22
Giza zientziak (%49)	%56	%44
Zientziak (%36)	%57	%43
Injinerutza (%2)	%92,5	%7,5
Osasuna (%3,5)	%55	%45

ONDORIOAK

Aurreko datuei begira ondorio nagusi batzuk nahikoa nabarmen ageri dira:

1. Irakasle euskaldun gehienak EHU daude.
2. Irakasle euskaldun gehienak ez-doktoreak dira.
3. Irakasle euskaldun gehienek behin behineko lanpostua dute eta formazio-bidean egonik. Lapostu finkoa duten irakasle gehienak unibertsital eskolakoak dira.
4. Irakasle euskaldunen zati handia oihartzun eta eragin sozialik gabeko alorretakoa da eta alderantziz, eragin sozial handiko ikasketan irakasle euskaldunen proportzioa oso murrizta da.

5. Euskal Unibertsitatea bideragarri egiteko irakasleen formakuntza lan sakona eta eraginkorra egin behar da, batez ere deshornituta agertzen diren arloetan.

Datu-iturriak:

Deustuko Unibertsitatearen bertako idazkaritzatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Hizkuntzalaritza eta Literatura Saileko Idazkaritzatik, Nafarroako Unibertsitatearen J. Rodriguez Ibabe Jaunaren eskutik eta Baionako Unibertsital Zentruetako datuak Jean-Michel Larrasquet Baionako IUTeko irakaslearen eskutik.

UPV/EHUri dagozkion datuak unibertsitate horretako Euskara Batzordeak erabiltzen dituen barne-txostenetatik atera ditugu.

UPV/EHUko ikasle, asignatura eta zentrueri buruzko informazioa bi iturri hauetatik lortu dugu:

- "Ikasleen Gida, 1993-94", UPV/EHUko argitarapen zentrua.
- Isasi, Xabier, "UPV/EHU. Irakasgaiak, ikasleak eta hizkuntza" in Euskal Unibertsitaterantz. (Argitaragabea) UEU. 1993.

FITXA TEKNIKOA

Lanaren izenburua EUSKARAREN EGOERA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEETAN

Egileen izenak. Iñaki Irazabalbeitia, Montse Maritxalar eta Kepa Altonaga

Instituzioa: UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Arloa: Unibertsitatea

Helbidea: General Concha 25, 6. 48010 BILBO

Telefonoa eta fax zenbakia: (94) 4217145